



# Literaturaren ordua

**2012ko literatur hauteskunderen emaitzak ezagutzera eman ditu Nafarroako Ikastolen Elkarteak. Hamalaugarren urtez hauteskunderak egin dira Euskal Herriko ikastetxeetan, eta ikasleek euren gogoko liburuak eta ilustratzaileak hautatu dituzte, bozketa bidez.**

Liburu guztiak ez dira berdinak. Batzuk gogoan gordezen ditugu, kontatzen dituzten istorioek hunkitu egin gaituztelako edo irakurtzean primeran pasatzen dugulako. Hainbat argitalpenek, beraz, liburu kutunen kategoriatan hartzen dute, hamaika arrazoi

dela medio, guretzat bereziak direlako.

Euren iritzia plazaratzeko aukera izan dute berriki Euskal Herriko neska-mutilek. Euren liburu eta ilustratzaile gústukoen aukeratu dituzte ikasleek, Juul kanpainako literatur hauteskunderen bidez. Apirilean egin dira hauteskunderak,

Euskal Herriko 53 ikastetxetan. Nafarroako Ikastolen Elkarteak hauteskunderak antolatzen dituen hamalaugarren urtea da.

Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arte ikasleek izan dute botoa emateko eskubidea. Boto txartelen edota boto elektronikoaren bidez

eman dute iritzia ikasleek. Denera, hamabost mila bototik gora bildu dira liburu hautatueneren kategorian, eta zortzi milatik gora ilustratzaileen kategorian.

Adinaren arabera, sei kategoriatan banatu dituzte emaitzak. Kategoria bakoitzean izan da azpimarratzeko zerbait. Haur Hezkuntzako kategorian, esaterako, euskal idazle baten lan bat izan da bigarrena: Juan Kruz Igerabideren *Jonasek arazo potolo bat du*.

Hainbat mailatan lan itzuliak gailentzen dira; Haur Hezkuntzako kategorian, esaterako. Eta, beraz, itzulpenen artean euskal idazle baten liburua gústukoen izatea «oso pozgarria» dela iritzi dio Irene Lopezek, Nafarroako Ikastolen Elkartearen arduradun pedagogikoak.

B kategorian, iazko liburu berak bildu du boto gehien: Josu Waliño idazlearen *Hortza galdu du Jonak* liburuak. Hurrengo kategorian, Toti Martínez Lezearen Nur pertsonaiak izan du arrakasta handiena, alde handiarekin izan ere. Nur bildumako bi liburuak eskuratu dituzte lehen eta hirugarren postuak. Bigarren liburu botoetan, berriaz, *Bat Pat. Estoldetako munstroa* izan



### Bozkatzeko ordua.

Urte osoan irakurritako liburu guztien artetik gogokoenen alde bozkatzeko aukera izan dute ikasleek hauteskundeetan. Irudian, Lesakan (Nafarroa) Tantirumairu ikastolan egindako bozketa. ARGAZKIAK: JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

da; Roberto Pavanelloren da liburu.

10-12 urte bitarteko gaztetxoan artean, berriz, Greg pertsonaiak izan du arrakasta handiena. «Greg-en liburuak oso-oso harrera ona izan du, ikaragarria, benetan azpimarratzeko modukoa», dio Lopezek, txundituta, emaitzak ikusi ostean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteen artean, berriz, «klasiko» batek lortu du lehen postua: Jasone Osororen *Ezekiel* liburuak.

Ilustratzaileen sailari dagokionez, erraz gailendu da Juan Luis Landa, Nur pertsonaiaren bilduman egindako lanengatik. Mikel Valverde, Jokin Mitxelena, Eider Eibar eta Patxi Gallegorentzat izan dira hurrengo postuak.

### Urte osoko lana

Ikasleen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ikastoletan antolatzen diren jardueren bilduma da Juul kanpaina. Urte osoan egin diren jardueren azken ekintza dira literatura hauteskundeak. «Urteko ekintzarik ikusgarriena da, urte osoan irakurritako liburu eta ilus-

tratzaile gogokoena hautatzen baitituzte ikasleek», dio Lopezek.

«Ekintza ikusgarriena izanagatik, urte osoan literaturaren inguruan ikastetxeetan egiten den lanak du guretzat indarra, eta horrek balio du», aitortu digu pedagogia ardura-dunak. Horregatik, Lopezek ez ditu ahaztu nahi irakurzaletasuna pizteko eta bultzatzeko asmoz urte osoan ikastoletan egiten diren jarduerak. Askotariko ekintzak egin ohi dira: liburu erakusketak; liburutegitarako txangoak eta bisitak; irakurritako liburuen aldeko ahozko kritikak zein idatziak; poster digitalak...

Ikasleen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko dira kanpainako jarduerak guztiak. «Juul kanpainari esker literaturaz hitz egiten dute ikasleek, eta horixe da guretzat garrantzitsua. Ikasleak irakurtzera animatzen ditu; baina ez hori bakarrik: euskal literatura eta euskal idazleak ezagutzera ere ematen ditugu».

Urtero liburu pila argitaratzen da gurean, eta haiek ezagutzera emateko, hauteskundeetako hautagaien zerrenda berritzen dute antolatzaileek urtero. «Betiko liburuak agertuko balira, ikasleek ez li-

tuzkete liburu berriak ezagutuko. Hala, bada, azken urtean argitaratutako lanak eta orain dela hiru urtetik hona argitaratutakoak jartzen ditugu zerrendan». Aurten, beraz, 2009tik hona kaleratutako liburuak zeuden hautagaien artean.

Beste behin ere arrakastatsua izan dira hauteskundeak; emaitzak ikusi besterik ez dago! Antolatzaileak «oso pozik» daude literatur kanpainak duen arrakastarekin. «Inolako propagandarik egin gabe parte hartzea handituz doa urtetik urtera. Euskal Herri osoko ikastetxeek parte hartzen dute, eta jende pila mugitzen da. Beraz, oso pozik gaude. Liburuez eta literaturaz hitz egiteko eta liburu berriak ezagutzeko tresna baliagarria da ikastetxeentzat eta irakasleentzat, eta hori oso pozgarria da guretzat», aitortu digu Lopezek.

2012ko literatur hauteskundeen emaitzak eman dituzte argitara. Orain, sari banaketa egitea baino ez zaie geratzen. Maiatzaren 23an banatuko dituzte sariak idazle eta ilustratzaile irabazleen artean. Jose Ramon Anda eskultorearen *Abedarioa* izeneko litografia bana jasoko dute irabazleek opari.

## Bozketen emaitzak

### LIBURU MAITEENAK

#### A kategoria (Haur Hezkuntza)

- 1.- *Mamu tren, mamu tren*, Jacques Duquenooy (Alberdania).
- 2.- *Jonasek arazo potolo bat du*, Juan Kruz Igerabide (Aizkorri).
- 3.- *Ametz handi bat*, Felipe Ugalde (Pamiela).

#### B kategoria (Lehen Hezkuntza 1-2)

- 1.- *Hortza galdu du Jonek*, Josu Waliño (Aizkorri).
- 2.- *Itsasoa etxe barruan*, Harkaitz Cano (Elkar).
- 3.- *Mari Ttipia. Zugarramurdiko ake-larrean*, Mikel Tellagorri (Sua).

#### C kategoria (Lehen Hezkuntza 3-4)

- 1.- *Nur eta etxe sorgindua*, Toti Martinez de Lezea (Erein).
- 2.- *Bat Pat. Estoldetako munstroa*, Roberto Pavanello (Mezulari).
- 3.- *Nur eta alfonbra hegalaria*, Toti Martinez de Lezea (Erein).

#### D kategoria (Lehen Hezkuntza 5-6)

- 1.- *Greg. Gizajo baten egunkaria*, Jeff Kinney (Alberdania).
- 2.- *Rita Robinson*, Mikel Valverde (Elkar).
- 3.- *Hamaiketan igerilekuan*, Antton Kazabon (Txalaparta).

#### E kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, 12-16)

- 1.- *Ezekiel*, Jasone Osoro (Elkar).
- 2.- *Kittano*, Joxantonio Ormazabal (Elkar).
- 3.- *Ortzadarra sutan*, Fernando Morillo (Elkar).

### ILUSTRATZAILE MAITEENAK

- 1.- Juan Luis Landa.
- 2.- Mikel Valverde.
- 3.- Jokin Mitxelena.
- 4.- Eider Eibar.
- 5.- Patxi Gallego.
- 6.- Jeff Kinney.

### HAUTESKUNDEAK, ZENBAKITAN

**Liburuen botoak:** 15.745.

**Ilustratzaileen botoak:** 8.360.

**Parte hartzaileen:** Euskal Herri oso-ko 53 ikastetxe.